



Gogoeta

Udarako oporretan gaude. Ze Garai polita! Egun luzeak eta jolasteko gogotsu senti arazten gaituztenak. Hondartzara, piszinara, erredera edo putzuan sartzeko planak egiten ditugun garaia da hau.

Eta nahi gabe sarri ondoan dugun lagunarekin konparatzen hasten gara: ni ez naizelako bera bezain azkarra korrika, edo igeri egiten baldarragoa naizelako. Edo nire altuera ez delako nahiko nukeena... Baina Jaunak bakoitza ezberdina egin gaitu, dohain bereziekin, bakarrekin. Eta hori ikusi eta baliolan jartzera gonbidatu nahi zaituztet!



Irakurketa

Erromatarrei 12, 4-6

Izan ere, gorputza bat den arren, atal asko ditu, eta ez dute atal guztiek egin-kizun bera; berdin guk ere: asko garen arren, Kristorekin elkarturik gorputz bat egiten dugu eta guztiok bata bestearen atal gara. Dohain ezberdinak ditugu, Jainkoak eman nahi izan dizkigun araberakoak. Beraz, Jainkoaren ize-nean mintzo denak iragar beza Jainkoaren hitza sinesmenari dagokionez.



Elkarriketa

- 1-Igela zerk kezkatzen zuen? Egoera hori aldatzeko zer egin zuen?
- 2-Bere lagunak ados zeudela uste duzue?
- 3-Zer gertatu zitzaion igelari? Eta zertaz ohartu zen?
- 4-Jainkoak ere zerbait eman digu bakoitzari, Zer? Zergatik ote da horrela?

ABESTIA: ZU GABE JESUS NORA (ELEZKANO)

<https://youtu.be/nfhHKmgrHPQ>

Zu gabe, Jesus, nora joango gara gu?
Zuk betiko bizitzako hitzak, Jauna,
dituzu.

UDARA ONA!!!

Hautzaroko eta Nerabazaroko Katekesiaren Gotzain Ordezkaritza



Udara

Otoitzean

Donostiako
Gozaindegia
Obispado de
San Sebastián

5. Zbk



Hasi aurretik

Otoitz giroan ipuin bat irakurriko dugu familian. Ea zertara animatzen gaituen! Guztion artean gogoeta egitera gonbidatzen zaituztet.



Ingurua girotu dezakegu

Mahai batean kandela piztu, Jauna gurekin dagoela gogoratzeko. Gurutze bat eta Ama birjinaren irudi bat ere jarri ditzakegu.

Ebanjelioa Erromatarrei 12, 4-6an irekita eta ipuina ere prest.



Ipuina irakurri: Idia izan nahi zuen igela

Bazen behin igel bat bere burua batere gustatzen ez zitzaiona. Egunero joaten zen hurbilen zuen urmaelara uretan zuen isla ikustera, eta deprimitu egiten zen bere akats guztiak kontatuz.

Zein itsusia eta arrunta sentitzen zen!

Goroto zuen bere postontzi-aho erraldoia, zeina, gutxi balitz, txoritxoan abesti gozoezin zerikusirik ez zuten hotsak ateratzen baitzituen berak.

Bere gorputzeko letxuga kolore berdea oso itsusia zela ere pentsatzen zuen, eta bere larrua estaltzen zuten orban ilunekin obsesionaturik zegoen, garatxoak ziruditelako. Baina, zalantzarik gabe, haren tamaina zen gehien aldaratzen zuena, hain txikia izateak animalia gehienak baino gutxiago sentiarazten ziolako.

Goizero, urmaelean bere buruari begira egon ondoren, etxera itzultzen zen, bere zoritxarragatik kexu. Itzulerako bidea beti berdina izaten zen: harri batzuk saihesten zituen, perretxiko gorritzko bidea egiten zuen, eta idi zahar bat bizi zen belardia zeharkatzen zuen. Ikusi orduko, bidean geldialdi bat egin eta bere irudi ikaragarriari begira geratu zen igela.

– Ai, zer zortea duen idi horrek! Handia izatea gustatuko litzaidake, bera bezain handia!

Ezdeus sentitzeaz asperturik, udaberriko arratsalde batean, bere lagun igel taldea bildu eta denak inguruan esertzeko agindu zuen.

– Entzun, neskak: amaitu da txikia izatea! Ahal dudan gehiena handitzen saiatuko naiz, eta ea lortzen dudan esatea nahi dut. Ez iezadazue begirik kendu! Konforme?

Lagunak elkarri begira geratu ziren, eta buruarekin ezetz esaten hasi ziren, baina ez zuen ezertarako balio izan, gure protagonistak erabakia hartuta zuelako.

Denborarik galdu gabe, kontzentratu, begiak itxi, eta ahal zuen aire guztia arnastu zuen ahotik. Ahoa estu-estu jarritz, hustu ez zedin, beste igelei galdetu zien.

–Idia bezain handia al naiz?

Haietako batek erantzun zion:

– Ez horixe! Puztu egin zara, baina inondik ere ez zara hain handia.

Igelak egoskorturik jarraitzen zuen, eta gimnasta erritmiko bat bezala luzatu zen aire kantitate handiago bati eusten saiatzeko. Bere gorputz txiki irristakorra, gutxienez bikoitza puztu zen eta biribildu egin zen. Pilota ematen zuen batrazioa bat balitz bezala!

– Eta orain? Lortu dut, neskak?

Igelek txundituta begiratu zioten elkarri! Argi eta garbi pentsatzen zuten bere laguna erotuta zegoela, baina, batez ere, errespetatu egin behar zuten bere erabakia, eta zintzo jokatu berarekin. Txikienak esan zion:

– Bai zera! Hazi egin zara, baina idiak zu baino askoz handiagoa izaten jarraitzen du.

Igela ez zegoen hain azkar amore emateko prest. Burua hutsik utzi eta oso sakon hartu zuen arnasa. Hainbeste aire sartu zen bere tripan, non danbateko bat entzun, eta gajoa puxika bat bezala lehertu zen, orratz batekin ziztatua bezala.

– Ai, ai, hau mina! Lagundu! Lagundu!

Lagunak korrika joan ziren haren ondora. Izutu egin ziren lurtean ahoz gora etzanda eta sabelean zulo bat zuela ikusi zutenean!

– Honek min handia ematen du. Egizue zerbait edo odolustuko naiz!

Zorionez, igeletako bat medikua zen, eta ondo ezagutzen zituen ama naturak eskaintzen zituen baliabideak. Inguruan bila aritu zen, eta arma-arma-sare bat aurkitu zuen, jaberik gabea, josteko hari gisa erabiltzeko, eta, zotz batzuen laguntzaz, urgentziaz operatu zuen. Zirujau gisa zuen trebetasunari esker, bizia salbatzea lortu zuen.

Igel zauritua aste batzuen buruan sendatu zen, eta harrezkero erabat aldatu zuen bere jarrera. Inoiz ez zen bere buruarekin gaizki sentitu, eta konturatu zen igel txiki bat izateak bazituela bere abantailak: urmaelean igeri egin zezakeen, salto ikusgarriak egin, nenufare hostoen atzean ezkutaketan jolastu, eta idiak bere ametsik onenetan ere egin ezin zitzaizkeen beste gauza asko. Azken batean, konturatu zen norbera askoz zoriontsuagoa dela bere burua den bezala onartzen duenean.

Irakaspena: Zentzugabea da aldatzen saiatzea inoiz izango ez garen zerbait bihurtzeko. Pertsona bakoitza ezaugarri desberdinekin jaiotzen da, eta ona da nola aprobeztatu jakitea. Harro egon zaitez zarenaz eta gozatu dituzun gaitasunez Ziur zure akatsak baino askoz gehiago direla!